

TERESA LISIEUXKOA ETA AITA IBARMIA

Santa Teresitari buruz milaka liburu idatzi izan dira eta aurrerantzean ere idatziko dira. Horretariko bat Aita Ibarmiaren “Teresa de Lisieux. Temas fundamentales”, 1997. urtean argitaratua, Teresitaren hil zaneko lehenengo mendeurrena ospatzen zala-eta. Hamazazpi kapitulu ditu eta bakoitzean gai bat darabil. Gai horreek Teresa gaztearen argitan aztertzen dihardu bere originaltasuna sakonduz.

Liburu sakona, aldi berean, argia eta ulerterraza. Teresitaren intuizio ederrenak eta bikainenak dakarskuz. Aita Ibarmiaren ikasle izan garanontzat, baleike beharbada, Teresitaren mezua ondoen bizi eta jorratu dauana berau izatea.

Karmeldar jakintsu, zintzo eta umil honek, Teologiako lizentziatura Lillen, (Frantzia) lortu eban eta Eskritura Santuen lizentziatura Erromako Bibliko Institutu sonatuan. Ondoren, urte askotan, Biblia Santua irakasten jardungo dau. Lehenengo Bilboko karmeldarren Teologiako Ikastetxe Nagusian eta gero Deustuko Unibertsitatean, baita beste lau urtetan zehar Palestinako Karmel Mendiko Santutegi famatuan ere.

Nire asmoa ez da Teresitaren intuizio originalenak Aita Ibarmiaren arabera aipatzea. Gaurkoz bakarrik, nahi dodana da Teresitaren bizipena eta esperientzia Jaungoiko “Maitasun Errukitsuari” buruz, karmeldar jator honen argitzapean gogora ekartea.

Jaungoikoa “Maitasun Errukitsua” da

Juan ebanjelariarentzat Jaungoikoa “Maitasuna” da (1Jn 4, 9). Teresitarentzat, ostera, Jaungoikoa “Maitasun Errukitsua” (6. Otoitza). Ze diferentzia dago Jaungoikoa “Maitasuna” dala esatetik “Maitasun Errukitsua” dala esatera? Originaltasun hori azpimarratzen dau Aita Ibarmiak Teresitaren Jaungoikoagan.

Ibarmiarentzat, Paulo apostoluaren eta Teresitaren planteamenduak salbamenaren aurrean desberdinak dira. Paulok ikusten dau gizadia pekatupean osorik murgilduta: “Danak, bai judeguak, bai jentilak, pekatupean dagoz” (Rm 3, 10); “Jainkoak errebelde izaten itzi eutsen gizon-emakume guztiei, danei erruki izateko” (Rm 11, 32); “Eta oraindino gehiago, nire ustetan ezerk be ez dau ezer balio, Kristo Jesus ene Jauna ezagutzearen dohain parebakoaren aldean. Kristogaitik dana galdu dot, Kristo irabaztearren eta beragaz bat eginda bizitzearren. Ez dot neuk neuretara salbatu gura, hau da, legea betetzetik datorren salbazinoaz, Kristorengan sinistetik datorrenaz baino, hau da, Jainkoak sinimenaren bidez emoten deustan salbazinoaz” (Flp 3, 8-9).

Teresitaren ikuspegia, ostera, zabalagoa eta ederragoa eta sakonagoa be bada. Jaungoikoa “Maitasun Errukitsua” dala esatean, Teresitak ez dau ulertzen “Maitasun Errukitsu” hori giza-kion pekatuari huts-hutsik lotuta bakarrik, baita inoiz pekatu bat egin gabeko guztiei lotuta ere. Esaterako, Andra Mariaren kasuan, baita ume errubakoen eta bere kasuan ere. Nahizta Teresita, jansenismoz kutsatutako gizartean bizi eta inoiz pekatuan jausi ez, Teresitak aurkitzen dauan Jaungoikoa “Maitasun Errukitsua” besterik ez da. Zeruan ere, Jaungoikoa “Maitasun errukitsua” izango dogu. Orduan bai konturatuko garala Jaungoikoa “Maitasun Errukitsua” besterik ez dala. Jaungoikoaren guganako “Maitasunaren” modalitatea eta era “Errukitsua” izatea da, bai mundu honetan eta bai betiko bizitzan ere.

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren artean ulertu ezinezko gorengo Maitasuna dago baina ez Maitasun Errukitsua. Maitasun Errukitsua Hirutasun Santuaren eta kreaturen artean aurkitzen da. Kreaturak, nahiz santuenak, nahiz pekatarrienak, Jaungoiko “Maitasun Errukitsuaren” magalpean bizi dira eta biziko eternitatean.

“Jaungoikoak gaiztoentzat eta zintzoentzat ataratzen dau eguzkia eta zuzenentzat eta okerrentzat egiten euria” (Mt 5, 45), dino Jesukristok. Eta Teresitak Bellière bere lagunari: “Ai, zein gutxi ezagutzen diren Jesusen ontasuna eta haren maitasun errukitsua!” (TG 261) Eta kezka josita egoan bere aizta Zelinari: “Herodesek Jesusi leporatu zion krimen bakarra zoraturik egotearena izan zen... eta nik ere hark bezala pentsatzen dut!... Bai, zoraturik zegoen; haren eromena, errege-aulki bihurtu nahi zituen hilkorren bihotz gaixoak bilatzean zetzan. Jesus, kerubinen gainean eserita dagoen aintzazko Errege!... Jesus, beronen presentziari zeruek ezin eutsi diotena! Eroturik izan behar zuen gure Maiteak, lurrera bila etorri eta bere lagun, bere kutun, bere pareko egiteko. Jesus, Hirutasuneko beste bi Pertsona Gurgarriekin hain zorionsua zena!... Guk ezingo dugu sekula hark gugatik egin zuen erokeriak egin” (GT 169).

Bi parabola eta Maitasun Errukitsuari egindako eskaintza

Teresitaren intuizio zoragarriak azaltzeko, Aita Ibarmiak beste testu ederren artean, hurrengo hiru testu honeek nabarmentzen ditu. Ze ederto argitzen dauan, Jaungoikoa “Maitasun Errukitsua” besterik ez dala...! Ez da inor geratzen ez zeruan ez lurrean Jaungoiko “Maitasun Errukitsuarengandik” kanpo.

1. Mediku baten bi seme

“Badakit Jesusek Santa Magdalenari baino gehiago barkatu didala niri, prebentzioz barkatu didalako, erortzea eragotziz. Ai,

nahi nukela somatzen dudana azaldu nahi izatea!... Hona hemen nire pentsamendua pixka bat adierazten duen adibide bat.

Egin dezagun doktore jakintsu baten semeak bidean erorazten dion harri bat aurkitzen duela, eta erortze honetan gorputz-adar bat hausten duela. Berehala hurbiltzen zaio bere aita, maiteki lurretik jaso, bere jakinduriaren baliabide guztiak hartan erabiliz zauriak sendatzen dizkio; laster haren semeak, guztiz sendaturik, bere esker ona agertzen dio. Ezbairik gabe seme honek badu motiborik bere aita maitatzeko! Baina oraindik beste hipotesi bat jarriko dut. Aitak bere semearen bidean harri bat zegoela jakinik, aurreratu egiten zaio arin-arin eta, inork ikusi gabe, baztertu egiten du. Egiaz, seme honek, bere samurtasunez aurre harturik nolako ezbeharretik babestu duen aitak jakin gabe, ez dio honi bere esker onik agertuko, eta hark sendatu izan balu baino gutxiago maitatuko du... Baina zein arriskutatik irten berri den jakingo balu ez ote du gehiago maite izango? Hara ba neu naiz alaba hau, zuzenak berrerostera barik bekataria berrerostera bere Hitza bidali zuen Aitak prebentziozko maitasunez gorde nauana. Nik maitatzea nahi du hark, barkatu didalako, ez asko, guztia baizik. Ez da zain egon santa Magdalenak bezain gartsu nik noiz maitatuko; esanezinezko maitasunez aurre harturik maitatu nauela nik jakitea nahi izan du, orain nik zoramenaz maite izan dezadan!... Entzuna dut ez dela aurkitu izan arima garbirik arima damutuak bezain gartsu maitatzen duenik. Ai, nik bai nahi nukela hitz hau gezurtatzea!... (A 39^a - 39i)

2. Izadiaren liburua

“Luzaro galdetu izan diot neure buruari zergatik dituen Jainko onak batzuk besteak baino maiteago, arima guztiek zergatik ez dituzten hartzen neurri berean graziak; harritu egin naiz bera iraindu zuten santuei mesede bereziak egiten ikusiz, esaterako, San Paulori, San Agustini eta, nolabait esateko, bere graziak hartzen behartu egiten zituela ikusiz; edota santuen

bizitzak irakurtzean, Gure Jaunak sehaskatik hilobiraino laz-tanki hartu dituenak, haien bidean beragana igotzea eragotz dezakeen ezer utzi gabe, mesede horiekin aurre harturik bere bataio-jantziaren distira aratza orbandu ez dezaten; neure buruari galdetzen nion zergatik basati gaixoak, adibidez, hiltzen ziren asko eta asko Jainkoaren izena esaten ere jakin gabe... Jesusek misterio honetaz niri argi egitea nahi izan du. Izadiaren liburua jarri du nire begien aurrean eta berak egindako lore guztiak ederrak direla ulertu dut, arrosaren distirak, zitoria-
ren zurtasunak ez diotela bere usain gozoa eragozten bioleta txikiari, ezta bitxiloreari ere bere xumetasun xarmangarria... Ulertu dut lora txiki guztiek arrosa izatea nahi balute, izadiak bere udaberri-apaintasuna galduko lukeela, zelaiak ez liratekeela loretxoz jantziak egongo...

Gauza bera gertatzen da Jesusen lorategi den animen munduan. Berak santu handiak sortu nahi izan ditu, zitori eta arrosaren antzekoak liratekeenak; baina txikiagoak ere sortu ditu eta hauek pozik egon behar dute bitxilore eta bioleta izateaz, Jainko onaren begirada alaitzeko hark bere oinetan makurrazten dituenen. Perfekzioa haren borandatea egitea da, hark gu izatea nahi duena izan gaitezela...

Nik ulertu dut Gure Jaunaren maitasuna arimarik gurenean bezain ongi agertzen dela haren graziari ezertan kontra egiten ez dion arimarik xumeenean. Izan ere, maitasunari dagokiona beharrezkoa izanik, beren irakatsiaren distiraz Elizari argi egiten dioten Santu Irakasleen antzekoak balira arima guztiak, haien bihotzetaraino datorrenean ez dirudi nahiko beharrezko denik Jainko ona. Baina berak sortu du ezer ez dakien eta intziri motel batzuk baizik egiten ez dituen haurtxoa; berak sortu basati gaixoa, gidaritzat berezko legea besterik ez duena, eta hauen bihotzetaraino nahi izan du jaistea! Hauek dira haren zelaietako loreak, haren xumetasunagatik hain liluragarri zaizkionak... Horrela jaitsiz, Jainko onak bere handitasun azken-gabea erakusten du. Eguzkiak era batera zedroak eta lore txi-

kietariko bakoitza, lurrean bera bakarrik balitz bezala, argitzen dituenek, era berean Gure Jauna ere bakarka arduratzen da arima bakoitzaz, besterik ez balego bezala; eta izadian, urtarok bitxilorerik xumeenari markaturiko egunean irekiarazteko ezarriak daudenez, era berean arima bakoitzaren onari begira dago guztia” (A 2i -3a).

3. Jaungoiko “Maitasun Errukitsuari” egindako eskaintza

“Hainbeste grazia jaso ondoren, ez ote dezaket nik ere kantatu salmogilearekin: ‘Jauna ona da, haren errukia betikoa da?’ Uste dut izaki guztiek nire grazia berberak izan balituzte, inor ez litzatekeela Jainko onaren beldur izango, bestera baizik, maitate izango luketela zoratzerraino; eta maitasunagatik eta ez dardarka, arima batek ere ez lukeela sekula onartuko hari atseka berik ematea... Badakit, hala ere, arima guztiek ez dutena antzekoak izaterik; familia desberdinak izatea beharrezkoa da, Jainko atributueteriko bakoitza ohoratzeko. Niri bere erruki azkengabea eman dit, eta onen argitan ikusten eta gurtzen ditut Jainkoaren gainerako bikaintasunak!... Horrela, guztiak agertzen zaizkit maitasunez argitsu. Justizia bera ere (eta, agian, beste edozein baino areago) maitasunez jantzia iruditzen zait...’

Zer poztasun gozoa Jainko ona zuzena dala pentsatzea!; hau da, ezagutzen dituela gure ahultasunak, ongi ezagutzen duela gure izaeraren argaltasuna! Zeren beldur izan naiteke, ba, ni? Ai! Seme galduaren bekatuak halako ontasunez barkatzea aintzat izan zuen Jainko mugagabe zuzenak, ez ote du, ba, zuzena izan behar ‘beti berarekin nagoen honekin?..’

Gogoan nituen nik beren burua Jainkoaren justiziari oparigaitzat eskaintzen zioten arimak, errudunentzat ziren zigorrak haiengandik alendu eta beragana erakartzeko. Eskaintza hau handia eta eskuzabala iruditzen zitzaidan, baina hori egiteko joera izatetik oso urrun nengoen ni. ‘Oi, ene Jainko!, oi hu egin nuen neure bihotz barnetik, zure justiziak hartuko ote ditu soilik oparigaitzat eskainitako arimak?... Ez al du zure mai-

tasun errukitsuak ere beraien beharrik?... Alde guztietan ezezaguna eta baztertua da. Zuk oparo eman nahi diezun arimak, sorkarietara bihurtzen dira, beren joran ziztrinarekin zorion eske jardunez, zure besoetan murgildu eta zure maitasun mugagabea onartu beharrean... Oi, ene Jainko! Zure maitasun arbuiatua zeure bihotzean gelditu ote da? Zure maitasunari erreoparizat eskainitako arimak aurkituko bazenitu, uste dut, laster batean kiskaliko zenituzkeela. Uste dut zoriontsu zinatekeela, zugan dauden mugagabeko samurtasun-olatuerei eutsi beharrean izango ez bazina... Zure justiziari, lurrean soilik isurtzen denari, hustutzea eder bazaio, zenbat ederrago ez ote zaio izango zure maitasun errukitsuari arimak kiskaltzea, zure errukia zeruetaraino altxatzen bada? Oi, ene Jesus! Neu izan nadila, oparigai dohatsu hori; kiskali zure erreoparia zeure jainko maitasunaren suaz!...' (...) Oi, zein gozoa den maitasun bidea!... Nik bai nahi nukeela buru-usterik osoenaz Jainko onaren borondatea betetzen saiatzea!... Nola amaituko da 'loretxo zuri baten historia' hau?... Ez dakit. Baina ziur dakidana Jainko onaren errukiak beti lagunduko diola...Betikotasun osoan kantatuko du Maitasun-kanta berria,,," (cf. A 83i-84i).

“Maitasunezko Bidetxo”

Aita Ibarmiaren esanetan, oso gogoko ebazan Teresa Lisieuxkoak Ebanjelioaren pasarte honeek: “Fariseuaren eta zergalariaren” parabola; “Mahasti eta azken orduko beharginen” parabola; “Simon fariseua eta emakume pekatari parkatua”; “Azken tokiak aukeratzea”; Eta gehien agertzen dan pasarte “Jesus eta umetxoena” izango da.

Beste hau ere kontuan hartzekoa da: Teresitaren santu kuttonenak: “Ume errugabeak eta lapur ona” ziran. Arrisku larriena, Jaungoiko “Maitasun Errukitsuaren” aurrean, norbere merituak errebindikatzea. Argi dinotso bere aizta nagusiari: “Egia esateko, aberastasun izpiritualak dira bidegabeko bihurtzen gaituztenak, zerbait handi direla pentsatu atseginez aberasta-

sun hauetan atsedean hartzen denean...” (TG 197) Atsegin jazoan Jesusen berbak: “agindutako guztia egin eta gero esan: Morroi gauzeztanak gara; egin behar genduana besterik ez dogu egin” (Lk 17, 10).

Konklusio gisa, Aita Ibarmiaren ustez, Teresa Lisieuxkoaren Jaungoikoa “Maitasun Errukitsua” danez, guganaino beheratzea dagokio, bai hemen eta bai eternitatean. Oso maite dau Teresitaren pasarte hunkigarri eta miresgarri hau ere:

“Ebanjelio santuan begiak ezarri orduko, berehala hartzen dut Jesusen bizitzaren usain gozoa eta badakit zer aldetatik korritu... Ez naiz lehiatzen lehen tokia hartzera, azkenengoa hartzera baizik. Fariseoarekin batera aurrerratu beharrean, uste onez beterik errepikatzen dut zergalariaren otoitz apala. Baina, batez ere, Magdalenaren jokaera imitatzen dut; haren ausardia amultsua. Bai, ni zihur nago egin daitezkeen bekatu guztiak neure kontzientziaren gain banitu ere, bihotza damuaren damuz urraturik joango nintzatekeela Jesusen besoetan neure burua uztera, berarengana itzultzen den seme galdua zein maite duen ongi dakit-eta. Ez da izan Jainko onak, bere errukiaz aurre harturik, nire arima bekatu astunetik gorde duelako ni harengana igotzea, konfiantza eta maitasunagatik baizik” (C, 36i - 37^a).

Horra hor, Teresitaren “Jaungoiko Maitasun Errukitsuaren” bihotza. Bere Jaungoiko “Maitasun Errukitsua” Jesus da. Bere “bokazioa” Jesus maitatu eta maitaraztea”. “Ez dut nahi beste koroirik Zeu baizik, oi ene Maite-Maitea!...” (6. O).

Horixe besterik ez da Teresitaren “Maitasun Bidetxoaren” sekretua; horixe bere “Doktrina Txikiaren” sekretua”; horixe bere “Guztia baita Grazia” oihukatzea; horixe bere “Haurtasun bide Izpiritualaren” oinarria; horixe bere “Maitasunak Maitasuna erakartzea”...

A. Olea